



BULEGOETAKO GOGOBEETZE-INKESTEN KANPAINA

“1.000 EUROKO BONUA KUTXABANKSTORE WEBGUNEAN GASTATZEKO”

1.- Definizioa:

KUTXABANK SAK ekintza komertzial bat egingo du Estatu osoan, eta adinez nagusi diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, Kutxabankeko bezero izan ala ez izan, oinarri hauetako baldintzak betez gero.

Zozketa egingo da soil-soilik publizitate- eta sustapen-helburuekin, eta ez du ekarriko ez gainpreziorik ez tarifa gehigarririk parte-hartzaileentzat.

2.- Sustapen honen saria honako hau izango da:

1.000 euroko BONU bat, www.cajasurstore.es edo <https://www.kutxabankstore.es/eu/> webguneetan erosketa bat egiteko 2024ko abenduaren 31 baino lehen.

3.- Kanpaina 2024ko uztailaren 22tik 2024ko urriaren 31ra egongo da indarrean, bi egun horiek barne, eta zozketa, aldiz, 2024ko azaroaren 18an egingo da, Bilboko notario Vicente María del Arenal jaunaren aurrean; zozketa egun horretan egiterik ez badago, hurbileko beste data batean egingo da.

Kutxabankek sustapen hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea izango du, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatu ahal izango du, baldin eta, arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo Kutxabanken borondatek kanpoko beste edozein arrazoiengatik, ezin bada ohiko moduan egin; kasu horretan, ez du inolako erantzukizunik izango aldaketa horrengatik, eta entitatearen konpromisoa izango da oinarri eta baldintza berriak jakinaraztea eta haien berri ematea, edo, hala badagokio, sustapena bertan behera uztea, nahikoa denborarekin jakinarazita beti. Dena den, horrek ez du esan nahi erantzukizunik hartuko duenik, ezta parte-hartzaileek kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango dutenik ere.

4.- Sustapenean parte hartu ahal izango dute adin nagusiko pertsona fisiko guztiek, baldin eta, zozketaren egunean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Bulegoetako gogobetetze-inkesta bete izana QR edo PDi bitartez.
- Zozketan izena eman eta Kutxabank SARI erabilera komertziala baimendu izana.
- Harremanetan jartzeko telefono-zenbakia eman izana.
- Kutxabankek sustapenetik kanpo utziko ditu, datuak babesteko araudiaren arabera, publizitaterik ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialik jaso nahi ez duten pertsonen fitxategi komun batean daudenak.
- Sustapen honetatik kanpo geratuko dira, era berean, Kutxabankeko eta Cajasurreko langileak.

Kutxabankek zozketatik kanpo utz ditzake Kutxabanken edo Cajasurren mugaeguneratutako saldo zordunak dituzten pertsona fisikoak, ordainketak egunean ez dituztenak edo Kutxabanki edo Cajasurri zenbatekoren bat zor diotenak, kontzeptua edozein izanik ere, edo zozketaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak.

5.- Parte-hartzaile bakoitzari “aukera” bat emango zaio erabiltzaile bakoitzeko.

“Aukerak” zenbakitu egingo dira, elkarren segidan, 1 zenbakitik hasita, jasotako hurrenkerari jarraikiz.



6.- Zozketa egiteko, fitxategi informatiko bat sortuko da 4. oinarrian aipatutako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileekin, erabiltzaile-zenbakiaren arabera eta bezero bakoitzari emandako “aukeraren” arabera ordenatuta. Fitxategi hori Bilboko notario Vicente M^a del Arenal Otero jaunari emango zaio.

7.- Zozketa notario aurrean egingo da 2024ko azaroaren 18an edo, zozketa egun horretan egiterik ez badago, hurbileko beste data batean egingo da.

Zozketa egiteko, notarioak zenbaki bat aterako du bonbo batetik; bonbo barruan, 1 zenbakitik hasi eta, 5. oinarrian adierazten denaren arabera, esleitutako azken zenbakira arteko zenbaki guztiak sartuko dira. Zenbaki hori izango da sariduna.

Erreserbako aukerak zehazteko, atera den zenbakiari honako hau gehituko zaio prozedura informatikoak erabilia: fitxategian erregistratutako aukera guztien kopurua zati 6 egingo da, hau da, sarien guztizko kopurua (1) gehi erreserben kopurua (5); eta ateratzen den zatidura biribildu egingo da, beherantz (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta). Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehen aukerarekin jarraituko da kalkulua egiten, erreserbako aukera guztiak (5) osatu arte; erreserbako aukerak atera diren hurrenkeraren arabera ordenatuko dira.

Ezinbesteko arrazoiengatik, Kutxabankeek zozketa bertan behera utzi ahal izango du eta parte-hartzaileei horren berri eman beharko die.

8.- Pertsona bakoitza behin baino ezin da saridun suertatu.

9.- Saridunari saria irabazi duela jakinaraziko zaio, ondorio guztietarako (ondorio fiskalak barne), telefonoz, posta elektronikoz edo Kutxabankeek erabiltzen duen eta egokitzat jotzen duen beste edozein bitarteko erabilia.

Parte-hartzaile saridun batek emandako datuetan akats bat dagoenean eta, horren ondorioz, pertsona hori ezin bada identifikatu eta/edo aurkitu eta, horrenbestez, ezin bazaio saria eman, erreserbako segidako hurrengoari emango zaio saria; kasu horretan, Kutxabankeek ez du beste inolako erantzukizunik izango.

Gainera, edozein arrazoiengatik ezinezkoa bada saridunei emaitzaren berri ematea zozketa egin eta hamabost eguneko epean, saria erreserbakoei esleituko zaie automatikoki, hurrenkerari jarraikiz.

Saridunak uko egin ahal izango dio sariari, baina ezin izango dio beste norbaiti laga. Uko eginez gero, zozketako hurrengo erreserbakoari eskainiko zaio saria.

10.- Sustapen honen xede diren sariak ezin izan izango dira, inolaz ere, trukatu, aldatu edo konpentsatu; sarien orde, ezin izango da beste sari baliokide bat jaso, ezta sariaren kontrabalioa dirutan jaso ere, betiere saridunek eskatuta. Kutxabankeek aldaketa hori egiteko eskubidea izango du, bidezko arrazoirik edo ezinbesteko arrazoirik gertatuz gero.

11.- Kutxabankeek ekitaldi horretarako egokitzat jotzen duen moduan eta lekuan banatuko zaizkie sariak bezeroei, eta Kutxabankstore gunean (kutxabankstore.es eta cajasurstore.es webguneetan, hurrenez hurren) erosketa bakarrean gastatzeko kupoi bat emango zaie, eskariari dagokion zenbatekoa kenduta. Eskaeran produktu bat edo gehiago eskatu ahal izango dira. Eskaeraren zenbatekoa deskontuarena baino txikiagoa bada, bezeroak ez du konpentsaziorik jasoko aldeagatik. Eskaeraren zenbatekoa deskontuarena baino handiagoa bada, bezeroak aldea ordaindu beharko du, horretarako jarritako bitartekoak baliatuta.



KUTXABANKek ez du inolako erantzukizunik izango saria irabazleari esleitzen zaion unetik aurrera. Ezin izango da inolako lege-ekintzarik abiatu KUTXABANKen aurka, saria gaizki erabiltzeari loturiko inolako arrazoiengatik.

Adibide gisa (baina ez da adibide mugatzailea), KUTXABANKek ez du bere gain hartuko sustapen honetan eragina izan dezakeen galera, lapurreta, atzerapen edo hirugarrenei egotz dakiekeen beste edozein zirkunstantziaren erantzukizunik.

12.- Bezero saridunak saria onartzen duela jakinarazi beharko du, horretarako sortuko den fitxa sinatuta, sariaren jakinarazpena jaso eta segidako 15 egun naturaleko epean.

13.- Sariari uko eginez gero, idatziz jakinarazi beharko da zozketaren emaitza jakinarazteko komunikazioa jaso eta segidako 15 egun naturaleko epean. Bezeroak sariari uko eginez gero, ez du inolako konpentsaziorik jasoko eta ezin izango dio beste inori laga. Kasu horretan, zozketako hurrengo erreserbakoari eskainiko zaio saria.

14.- Bezeroari jakinarazpena bidali eta, 15 egun naturaleko epea igarota, komunikaziorik jaso ez badugu (ez onartzeko, ez uko egiteko), bezeroak sariari uko egin diola ulertuko da, eta Kutxabanke eskubidea izango du sariaz baliatzeko.

15.- Zozketan parte hartuz gero, parte-hartzaileen datuak Kutxabanken Informazio Sistematan sartuko dira partaidetza hori kudeatzeko.

Datuak erabiliko dira soil-soilik saridunaren izena, abizenak eta/edo irudi pertsonala erabiltzeko, erreproduzitzeko edo zabaltzeko edozein publizitate- edo sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, eta jarduera horiek ez dute inolako onurarik edo ordainsari-eskubiderik emango, baldin eta saridunaren edo haren legezko ordezkariaren berariazko adostasuna badute.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, edozein unetan erreklamazioa aurkeztu ahal izango da kontrol-agintaritzan aurrean. Gainera, baliatu ahal izango dira ere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak, idatzi bat bidalita Kutxabanken egoitza sozialera edo info@kutxabank.es helbide elektronikora, NANaren kopia erantsiz kasu batean nahiz bestean. Zure ustez, zure datu pertsonalak ez baditugu arauen arabera tratatu, Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@kutxabank.com.

16.- Saridunek ordaindu behar izango dituzte kanpaina honetako sarien ondorioz sortzen diren zerga-karga guztiak.

17.- Zozketaren egunean, parte hartzeko aukera ematen zuen erabilera komertzialaren harpidetza ezeztatuta dutenak ezin izango dira saridun suertatu.

Saridun izateko baldintza izango da zozketan parte hartzen duen bezeroa erregistratuta egotea eta bere datuen erabilera komertziala baimenduta izatea zozketaren egunean.

18.- Kutxabanke sustapen hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea izango du, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatu ahal izango du, baldin eta, arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo Kutxabanken borondatek kanpoko beste edozein arrazoiengatik, ezin bada ohiko moduan egin; kasu horretan, horren berri eman beharko du Kutxabanken eta Cajasurren webgunean.

Era berean, kasu horretan, Kutxabanke oinarri eta baldintza berriak jakinarazteko konpromisoa hartzen du edo, hala badagokio, sustapena bertan behera utzi izanaren berri emango du, nahikoa denborarekin jakinarazita beti.



Kutxabankek ez du erantzukizunik izango entitateari egotzi ezin zaizkion arrazoiaren ondoriozko atzerapen, galera edo hondatzeengatik; era berean, ez du erantzungo irabazleari sariaz osorik edo partzialki baliatzea eragotz diezaioketen ezinbesteko kasuetan.

Halaber, Kutxabank erantzukizun oroz salbuetsita geratuko da sariaz osorik edo partzialki baliatzeagatik sor litezkeen kalte-galerengatik.

19.- Notario aurreko oinarri hauek bezeroen eskura egongo dira webgune hauetan: www.kutxabank.es eta <https://portal.cajasur.es/>.

20.- Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek berariaz onartzen direla, entitateak sustapenaren mekanika definitzeko ezarri dituen eta parte-hartzaileak berariazko baimena ematea eskatzen ez duten baldintzei dagokienez, baita sustapenarekin lotutako gorabeherak ebazteko Kutxabanken irizpideak ere. Sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu Kutxabankek, eta eskubidea izango du, justifikatutako arrazoiaren batengatik, bezero bat zozketatik kanpo uzteko, baldin eta bezero horrek iruzur egiten badu, edo zozketaren funtzionamendu egokia eta ohiko nahiz arauzko garapena eragotzi edo oztopatzen badu.

Bilbo, 2024ko ekainaren 3a.